


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da zure bezeroa?

Pertsona begetariano eta beganoak.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Pertsona begetariano eta beganoak izango dira eta baita ere, osasuntsu jatea gustatzen zaienak izango dira.



Bezeroen segmentazioen arabera gure merkatua merkatu masiboa da. Merkatu masiboa antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da. Gure merkatuaren kasuan, edukiko ditugun bezeroek behar berdinak izango dituzte, denak begetariano eta beganoak baitira.. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen.

- Norentzat sortzen dugu balorea?

Bereziki, pertsona begetariano eta beganoak direnentzat. Hala ere, gure jatetxea mota guztietako pertsonentzat irekia egongo da.

- Zeintzuk dira ukituko ditugun segmentuak negozio-eredu honen bitartez?

Taula honek gure merkatua irudikatzen du. Tolosan jatetxe asko daude eta mota ezberdinetakoak. Gure jatetxeean janari berezia eskaintzeaz arduratuko gara eta prezioari dagokionez ez da izango ez oso garestia eta ezta ere oso merkea ere.

	MERKEA	ERTAINA	GARESTIA
BERTAKO JANARIA		X	
ATZERRIKO JANARIA			
JANARI BEREZIA		X	

Gure jatetxea, merkatu-nitxoa da, begetariano eta beganoen beharrak asetzen dituelako.

- Gehienez, zenbat bezero izan ahal ditugu?

72 eta 90 artean. (12-15 bat mahai 6 pertsonako, batzuk terrazan eta besteak barruan)

- Zeintzuk izan daitezke gure bezerorik garrantzitsuenak?

Pertsona begetarianoak eta beganoak direnak.